

### 1.- EKINTZAILITASUNA SEKTORE INDUSTRIALEAN

Tkgune Fabrikazioa, Berrikuntza eta Teknologia Transferentziarako Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako Ikastetxeek, Tkgune Fabrikazioa gazteentzako enpresa industrialeko ideia lehiaketaren V Edizioa abiatu du, Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Ekintzailetasun industrialean eremuan kokatuz, Euskal Herrian errotutako beste ekintza on batzuk osatu nahi ditu.

Beste sektoreekiko alderatuta ekintzailetasun industrialek baditu hainbat zailtasun; ondorioz mota honetako proiektu kopurua mugatuagoa da, zeren eta azpiegitura garestiak behar baititu abiatzen diren momentutik (makinak batik bat), eta horrek dakarren finantzazioa litzake lehen oztopoetako bat.

Testuinguru honetan, ekintzailetasun industrialak sustatzeko eta etorkizuneko erronkak era arrakastatsuan lantzen lagunduko duen eremua sortzeko, ekimen hau abiatzea egokitzat jo dugu.

### 2.- HELBURUAK

Enpresa industrialeko ideia lehiaketa honen deialdiaren helburuak ondorengoak dira:

- Gazteen artean izaera industrialak duten enpresa proiektuen garapena sustatu.
- Enpresa industrialeko sustapena erraztu, erabilzaile adituak dituen azpiegitura industrialek utziz.
- Enpresa proiektuen egingarritasuna hobetu eta arrisku ekonomikoak murriztu, eremu industrialeko lehiaketaren erakunde kolaboratzaileen ezagutza eta eskarmentua dela eta.
- Ideia, ekintzaile eta enpresen arteko topaketa erraztu, proiektu industrial berriak sortzen laguntzeko gune emankorra eratuz.

### 3.- EZAUGARRIAK

Desberdin eta erakargarri bihurtzen duten alderdiak azpimarratuz, ondorengoak aipatu:

- Proiektuen izaera industrialak dela nabaritu behar da.
- Lantegi eta laborategien azpiegitura teknikoak dakar, eta ekintzailetasun industrialak dinamizatu eta gazteen enplegurako aukerak hobetzeko, aitortutako zeharkako ezagutza eta teknologia desberdinei buruzko irakasle adituz osatutako taldearen laguntza dakar.
- Esparru industrialean ingurune espezializatuaren bihotzetik sustatzen da, alderdi hau hautatuko diren proiektuen etorkizuneko bideragarritasunarentzat gakoak izanik.

### 4.- ONURADUNAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten proiektu industrialek:

- Izaera industrialeko ideia edo proposamen enpresarialak duten ekintzaile edo ekintzaile-taldeak.
- Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- Sustatzaileen adina 35 urtetik beherakoa izatea.

Izen ematea doakoa da.

### 5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lehiaketan aurkeztuko den eskaera bakoitzak ondorengo dokumentazioa izan beharko du:

- Eskaera orria beteta eta eskatzailearen sinadura, pertsona bakarrarena zein taldearena.
- Eskatzailearen errolda-ziurtagiria.
- NAN fotokopia.
- Proposamen bererako jasotako laguntzen adierazpena (jaso bada)
- Memoria teknikoak, atal hauek kontuan hartuta:
  - Proiektuaren deskribapena
  - Merkatu aukerak
  - Lehiakideen identifikazioa
  - Proposamenaren berrikuntza
  - Produktu finala edo bitartekoa
  - Aurreikusitako giza kapitala eta taldearen deskribapena
  - Aurreikuspen finantzarioak eta enplegu sorkuntzarenak

Proiektuak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera orria eta memoria teknikoaren ereduak ondorengo helbidean aurki daitezke:

<http://www.oteitzalp.eus>

### 6.- SARIAK

Bi sari banatuko dira:

**Enpresa industrial ideia onenari**

- 2.500 € eskudirutan
- 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera
- 100 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko
- 300 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialek erabiltzeko (makinak, ...)

**Euskadiko Lanbide Heziketako ikasle edo ikasleohiak aurkeztutako enpresa industrial ideia onenari**

- 2.000 € eskudirutan
- 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera
- 50 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko
- 100 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialek erabiltzeko (makinak, ...)

Sariak ez dira metagarriak.

### 7.- LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Tkgune Fabrikazioa enpresa industrialeko ideia lehiaketaren sariak bateragarriak dira sustatzaileak kontzeptu berean eskuratutako beste laguntzekiko, beti ere, laguntzen diru kopuru guztiak ez badu aurkeztutako proiektuko aurrekontuaren kopuruaren %100 gainditzen.

Enpresa Industrialeko Ideia Lehiaketa Gazteentzat [mujika@oteitzalp.eus](mailto:mujika@oteitzalp.eus) - Telefonoa: 943111000 (Iñigo Mujika)

ERAKUNDE  
LAGUNTZAILE  
eta ZENTRO  
ANTOLATZAILEAK



### 8.- PROPOSAMENEN BALORAZIO IRIZPIDEAK

#### Egingarritasuna (25 puntu)

Proposatutako ideia enpresariala martxan jarri ahal izateko beharrezkoak dituen giza baliabide, baliabide material eta finantzarien kalitate eta kantitatearen arabera baloratuko da.

#### Merkatu potentziala eta lehiakideak (20 puntu)

Helburu den edo diren merkatu-nitxoak, merkatuarekiko ezagutza maila eta ideia enpresarialaren posizionamenduaren estrategia, eta aurkeztutako proposamenarekiko dagoeneko merkatuan dauden alternatiba nagusien analisia.

#### Berrikuntza (20 puntu)

Idea enpresariala dakarren berrikuntza maila baloratuko da, dagoeneko merkatuan edo bere eragin esparru teknologikoan dagoenarekiko.

#### Produktu finala edo bitartekoa (10 puntu)

Emaitzatzat produktu finala izango duen ideia enpresariala lehenetsiko da, zeren eta ondorioz sortuko den enpresaren etorkizuneko lehiakortasun maila handituko baita.

#### Epe motzean enplegu sorrera (25 puntu)

Egindako aurreikuspenen arabera, hurrengo 3 urtetan sortuko den lanpostu kopurua baloratuko da.

### 9.- EBALUAZIO PROZESUA

Ebaluazio prozesua hiru fasetan garatuko da:

#### 1.- Oinarrizko proposamenaren ebaluazioa

Oinarrizko proposamena, hau da, proiektuaren deskribapena, merkatu eta lehiakideekiko aukera, eta berrikuntza maila jasoko dituen, Tkgune Fabrikazioko ekintzailetza arduradun-taldeak ebaluatuko du.

Gutxieneko puntuazioa lortzen duten proposamenek ondorengo garapen fasera pasako dira.

#### 2.- Proposamen osoaren ebaluazioa

Lehen ebaluazio fasean aukeratutako proposamenak, dagokien talde sustatzaileek garatuko dituzte, proposamenen negozio-plan osatua aurkeztu arte.

Proposamen osatu hauek, Batzorde Ebaluatzaileari bidaliko zaie, eta harek puntuatu egingo ditu aurretik deskribatutako irizpideak kontuan izanik.

Puntuazio hobereana lortzen duten 3 proposamenak pasako dira azken fasera.

#### 3.- Proposamen finalistak Batzorde Ebaluatzaileari aurkeztu.

Hiru proposamen finalistaren talde sustatzaileek beraien proiektua defendatuko dute Batzorde Ebaluatzailearen aurrean; batzordeak beharrezkoak uste dituen galderak egin ahal izango ditu, proiektuen informazio hobereana lortu ahal izateko, azken berediktua emateko.

### 10.- BATZORDE EBALUATZAILEA

Batzorde Ebaluatzailea izango da proposamen irabazlearen hautaketa egingo duena. Batzordea Makina Erremintaren Institutuak (IMH) izendatuko du, eta nagusiki lehiaketa honen antolaketan lagundu duten enpresa eta erakunde ordezkariek osatuko dute.

### 11.- EPEAK

#### Lehiaketaren argitaratzea

Proposamenak 2018ko apirilaren 9tik aurrera aurkeztu ahal izango dira.

#### Enpresa-ideien aurkezpen epea:

Aurkezpen epea 2018ko maiatzaren 15ean amaituko da. Proposamenak Oteitzan, Gipuzkoa Kalea 5, 20800 Zarautzen aurkeztuko dira. Izen emateak balioa izango du Eskera Orria eta Memoria Teknikoa emandakoan.

Paperean aurkeztuko den dokumentuekin batera CD edo DVD batean memoria teknikoak aurkeztuko da Writer edo Word formatuan, eta memoria teknikoaren finantza aurreikuspenak Calc edo Excel formatuan.

Proposamena aurkeztu ondoren, akats edo zehaztasun-gabeziarik egongo balitz, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 egun izango ditu egokitzapenak egiteko. Epe horretan zuzenketarik ez badu egiten bere parte hartzea bertan behera geldituko da.

#### Ebazpena eta sari banaketa: Ekaina.

Parte hartzaileei idatziz jakinaraziko zaie proposamenaren ebaluazioaren emaitza. Batzorde Ebaluatzailearen erabakia apelaezina izango da.

Sari banaketa Udalarekin elkarlanean antolatuko den saioan banatuko da.

#### Proiektuen gautzatze epea:

Enpresa proiektuari emango zaion laguntza, proiektua abiatu eta 18 hilabeteren epean egin beharko da.

### 12.- ORDAINKETAK

Eskudirutan ordainduko den sariaren zatia banketxe transferentziaren bidez egingo zaio saritua izan den proposamenaren titularrari, bi epetan:

%75 saria ematean.

%25 saria eman eta 3 hilabeteko epean, beti ere enpresa-proiektua garatzen ari dela begi bistakoa bada.

### 13.- IDEIEN KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa industrialen ideia lehiaketa honen helburu nagusia da enpresa-proiektu berriak sortzea; sustatzaile, ideia eta enpresen arteko elkarretaratzea sustatuz.

Hala ere, aurkeztutako lanen konfidentzialtasuna mantentzeko, parte hartzaileari bere proposamena konfidentziala den ala ez erabakitzeo aukera emango zaio.

Proposamena konfidentziala dela erabakitzen bada, Batzorde Ebaluatzaileari bakarrik erakutsiko zaio.

Proposamena konfidentziala ez dela esaten badu, proposamenaren tituluak eta laburpenak eskuragarri egongo dira sariak banatu eta hilabetea pasa ondoren. Egindako proposamenen inguruan informazioa eskatuko lukeen erakunderik azalduko balitz, eskaera hau proposamenaren titularrari bideratuko zaio, eta horrek erabakiko du zer egin.

Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketa Gazteentzat [mujika@oteitzalp.eus](mailto:mujika@oteitzalp.eus) - Telefonoa: 943111000 (Iñigo Mujika)

ERAKUNDE  
LAGUNTZAILE  
eta ZENTRO  
ANTOLATZAILEAK



ELGOIBAR  
UDALA  
AYUNTAMIENTO



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Berrikuntzako, Landa Garapeneko  
eta Turismo Departamentua

